

Gure enpresak diru sarrera batzuk izango ditu, gehien bat erabiltzaileek ordaintzen dutena eta guk ekintza osagarriak eginez lortuko ditugun etekinak. Beheko taulan parte-hartzaileak ordaindu behar duten kuota eta matrikula agertzen da:

Kirol bat eginez gero	30€ hilero
Bi kirol eginez gero	50€ izango dira, bakoitzak 25€
Urteko matrikula	40€
Segurua (kirolarientzako aseguruia kirol arloan izandako istripu pertsonalen ondorioak estaltzen dituen poliza da, entrenamenduetan nahiz lehiaketetan)	3,20€ hilero
Familia ugariakoak	5€-ko deskontua izango dute bakoitzeko

Horretaz aparte, elkartasuna adierazteko pertsonak dohaintza eman ahalko dute, eta bazkide bihurtu, nahiz eta proiektu honetan aktiboki parte ez hartu. Bazkide izatearen onuren artean, txangoetan parte-hartzeko aukera izango dute eta emailaz jasoko dute elkartearen propaganda guztia.

Forum eta Decathlonek honako material hauek emago dizkigute: entrenatzeko-konoak, petoak, futboleko baloiak, saskibaloiko baloiak, teniseko pelotak eta hainbat raketa, sareak, pinponeko pelotak, palak eta tabla, eta azkenik rugbiko pelota eta errugbian jolasteko eta kolpeetatik babesteko erabiltzen den arropa.

Elkarteak kamiseta batzuk sortuko ditu eta egin nahi diren lehiaketa solidarioetan salduko ditugu, hortik diru sarrera gehiago lortzeko. Lasterketa eta lehiaketa hauetan kamisetak saltzeaz gain, ogitartekoak ere salduko ditugu, bakoitza 4€-tara. Kamiseta hauek 10€ balioko dituzte eta lasterketan bertan postu bat jarriko dugu kamisetak guztien eskura egoteko. Diru sarrera hauek gure enpresako baliabideak hobetzeko erabiliko ditugu, hau da, irabazi hauekin guztiontzako onurak lortu nahi ditugu.